

ADJEKTIBO KALIFIKATZAILEA IZENAREN MODIFIKATZAILEA BAKARRIK OTE?¹

EGILEA: Edurne Vidador Barberena.

evidador001@ikasle.ehu.eus

GRADUA: Euskal ikasketak (EHU/UPV).

IKASTURTEA: 2014/2015.

TUTOREA: Javier Ormazabal Zamakona.

GRADUKO JAKINTZA-ARLO/SAILA: Euskal hizkuntzalaritza eta literatura.

¹ Nire eskerrik beroenak nire tutoreari, Javier Ormazabali, eskaini didan laguntza handiagatik eta nirekin izan duen pazientziarengatik. Halaber, Xabier Artiagoitiari, oraindik argitaratu ez badu ere, adjektiboaren inguruan idazten ari den eskuizkribu bat utzi eta erabiltzeko aukera eman didalako.

LABURPENA

Lan honek euskal hizkuntzalaritza tradizionalan adjektiboa ulertzeko moduarekin haustura izan nahiko luke. Tradizio honen arabera, adjektiboa izenaren ondoan agertzen dena eta izena modifikatzen duena da. Beraz, adjektiboaren funtzioa izen sintagmaren barruan agertzera mugatzen da.

Nolanahi ere, adjektiboaren erabilera edo funtzioa ez da izen sintagmaren barruan agertzera mugatzen: izen sintagmaren barruan ez ezik adberbio edo aditzondo erabileran eta predikatuan ere ager daiteke. Lan honetan, beraz, irakurleak adjektiboaren hiru funtzio edo erabilera hauen inguruan zer irakurri izango du.

Adjektiboa zer den ulertzeko hiru erabilera edo funtzio horiek ezinbestekoak badira ere, lan honetan, hirugarren erabilerari, hots, predikazioari emango zaio lehentasuna. Predikazioa aipatzen delarik, askotan ez da kontuan hartzen adjektiboak predikatuak izan daitezkeenik. Horregatik, lan honetan, lehen eta bigarren mailako predikazioan adjektibo kalifikatzaileen portaera zein den, hots, zein propietate edo ezaugarri erakusten duten deskribatuko eta azalduko da.

Lehen mailako predikazioari dagokionez, zenbait adjektibo kalifikatzaileen propietateak deskribatuko dira, argumentu-egiturari, aditz laguntzaileen hautespenari, mailakatzailen eta konparazio-atzizkien onargarritasun mailari eta artikulua erabilerari dagokienez:

Oro har, predikatu hauek gaiaren θ -errola duen KonpS, DS edo PS bat hautatuko dute. KonpSak eta DSak subjektu badira ere, PSak osagarri izaten dira.

Gainera, adjektibo kalifikatzaile hauek predikatu nagusiari dagokion posizio sintaktikoan agertzen dira, hots, aditza agertu ohi den posizioan. Halaber, argumentu-egiturari dagokionez, aditzek eta adjektiboek antzeko propietateak erakusten dituzte. Dena den, adjektibo kalifikatzaile hauek aditz batek baino argumentu-egitura murriztagoa erakusten dute: alde batetik, ez ditu mota guztietako KonpSak eta PSak hautatzen eta bestetik, ez ditu beti DSak hautatzen.

Aditzaren posizioan agertu arren eta aditzarekin zenbait propietate konpartitu arren, bada desberdintasun handi bat aditzaren eta adjektibo hauen artean: artikulua hartzeko gaitasuna. Arazoaren garrantzia edo konplexutasuna alde batera utzi gabe, lan

honetan, Egurenen (2007) ekarpena oinarritzat harturik, predikazioan agertzen den artikulua hori predikazio marka bat dela proposatuko da.

Bestalde, lan honetan, adjektibo kalifikatzaileak aditz laguntzailea hautatzen duela erakutsiko da: normalean, *izan* aditz laguntzailearekin agertu arren, posible da, *egon*, **edin* eta **edun* aditz laguntzailearekin agertzea, nagusiki, esperimentatzailearen edo egileren bat agertuz gero; beraz, Arteatxeren (2015) proposamenaren kontra, indar predikatiboa adjektiboaren baitan jarriko da eta aditz jokatuari komuntadura, denbora edo aspektu burua izatea, hots, aditz laguntzailea izatea egotziko zaio.

Era berean, mailakatazaileak eta konparazio atzizkiak hartzeko gaitasuna adjektibo kalifikatzaileen ezaugarri nagusizat hartzen bada ere, lan honetan deskribatuko diren adjektiboetako batzuk mailakatazaileak eta konparazio atzizkiak hartzeko zailtasun handiak izango dituzte.

Bigarren mailako predikazioari dagokionez, esan beharra dago, adjektiboak ez direla predikatuaren ardatz, hautazko osagai baizik. Edonola ere, oso propietate interesgarriak erakusten dituzte: lehenik, subjektuaz eta osagarri zuzenaz bakarrik predikatu daitezke; bigarrenik, subjektuari dagokion predikatu bat eta objektuari dagokion beste bat perpaus berean agertzea posible da.

Azkenik, adjektiboen predikatu izaerarekin bat, lehen eta bigarren mailako predikazioari dagokionez, analisi sintaktiko bat proposatuko da: adjektiboa denbora buruaren osagarrian kokatuko da (predikazio marka agertzekotan, predikazio buruaren osagarrian) eta hari dagokion argumentua, osagarrian edo espezifikatzailean (subjektua bada). Dena den, Islapen Hatsarre Zabalduren dela eta, subjektua denbora sintagmaren espezifikatzaile mugituko litzateke. Bigarren mailako predikatuan parte hartzen duten adjektiboak, aldiz, aditz sintagma sortuko dira. Dena den, subjektuari zuzendutakoak aditz sintagmaren adjuntuak direla proposatuko da eta objektuari zuzendutakoak, aditz primaren adjuntuak.

AURKIBIDEA

0. SARRERA: *6. eta 7. orrialdeak.*

1. ADJEKTIBOA: *7. orrialdea.*

1.1. Terminologia, definizioa eta sailkapena: *7., 8. eta 9. orrialdeak.*

2. ADJEKTIBO KALIFIKATZAILEAK: *9. orrialdea.*

2.1. Adjektibo kalifikatzaileen ezaugarri morfologikoak: *10. eta 11. orrialdeak.*

2.2. Adjektibo kalifikatzaileen ezaugarri sintaktikoak: *12. orrialdea.*

2.2.1. Adjektibo kalifikatzaileak izen sintagman: *12. eta 13. orrialdeak.*

2.2.2. Adjektibo kalifikatzaileak adberbio edo aditzondo bezala: *13. eta 14. orrialdeak.*

2.2.3. Adjektibo kalifikatzaileak predikazioan: *14. orrialdea.*

2.2.3.1. Lehen mailako predikatuak edo predikatu osagarriak: *15. orrialdea.*

2.2.3.1.1. Aztergai batzuk: *16. orrialdea.*

2.2.3.1.1.1. *Ziur* adjektiboa: *16. eta 17. orrialdea.*

2.2.3.1.1.2. *Erraz*, *zail* eta *gaitz* adjektiboak: *17., 18. eta 19. orrialdeak.*

2.2.3.1.1.3. *On* eta *hobe* adjektiboak: *19. eta 20. orrialdeak.*

2.2.3.1.1.4. *Zilegi* adjektiboa: *20. eta 21. orrialdeak.*

2.2.3.1.1.5. *Harrigarri* eta *beharrezko* adjektiboak: *21. eta 22. orrialdeak.*

2.2.3.1.1.6. *Zale* adjektiboa: *22. eta 23. orrialdeak.*

2.2.3.1.1.7. *Jakitun* adjektiboa: *23. eta 24. orrialdeak.*

2.2.3.1.1.8. *Posible* adjektiboa: *24. orrialdea.*

2.2.3.1.1.9. *Pozgarri* adjektiboa: *24. eta 25. orrialdeak.*

2.2.3.1.2. Orokortasun zenbait: *25. orrialdea.*

2.2. 3.1.2.1. Argumentu-egitura: 26. orrialdea.

2.2.3.1.2.2. Aditz nagusiarekiko kontrasteaz eta aditz laguntzailearen inguruko auziaz: 26., 27., 28. eta 29. orrialdeak.

2.2.3.1.2.3. Artikuluaren auziaz: 29., 30. eta 31. orrialdeak.

2.2.3.1.2.4. Mailakatzaileren eta konparazio atzizkien erabileraz: 31. orrialdea.

2.2.3.1.2.5. Analisi sintaktikoa: 32. eta 33. orrialdeak.

2.2.3.2. Bigarren mailako predikazioa edo predikatu adjuntuak: 33., 34. eta 35. orrialdeak.

3. Ondorioak: 35. eta 36. orrialdeak.

4. Bibliografia: 36. eta 37. orrialdeak.

0. SARRERA

Euskal hizkuntzalaritzaren tradizioan, adjektiboa izenaren ondoan agertzen den modifikatzailea bailitzan aztertu da. Hala ere, lan honetan erakusten saiatuko naizen bezala, izenaren modifikatzailea izateaz gain, beste bi funtzio garrantzitsu ere bete ditzake: alde batetik, adjektiboa adberbio edo aditzondo gisa ager daiteke; bestetik, adjektiboa predikatuan ager daiteke. Kasu honetan, aukera bikoitza izango da. Izan ere, predikatu osagarri baten ardatza edo predikatu adjuntu baten hautazko osagaia izan daiteke.

Horrenbestez, nire helburua izango da, adjektiboa izenaren ondoan egotera mugatzen ez kategoria dela erakustea, alegia, adjektiboak izenetik nahiko askea den banaketa erakusten duela frogatzea. Horretarako, nagusiki, adjektibo kalifikatzaileak ardatz dituen predikatuen portaera eta propietateak deskribatuko eta azalduko ditut. Azken erabilera edo funtzio honetan, adjektiboek beste predikatuen (batez ere, aditzaren), antzeko ezaugarriak edo propietateak erakusten ditu baina adjektibo kalifikatzaile arruntten propietateetatik urruntzen dira, batez ere, mailakatzaileak eta konparazio atzizkiak hartzeko gaitasunean.

Bestalde, euskal predikazioaren inguruan, lan handia eta sakona egin du Zabalak (1993). Azken aldirian, euskal predikazioaren inguruan egin den lan bakarra Arteatxerena (2015) izan da. Hain zuzen ere, Arteatxek (2015) adjektiboak ardatz dituen predikatuak aztertu ditu. Beraz, Zabalaren (1993) eta Arteatxen (2015) lanak alde batera utzirik, euskal predikazioaren inguruan egin diren lanak ez dira asko izan. Dena den, zuzenean edo zeharka, xehetasun batzuk eman dira. Adibide gisa, aipa daitezke, EGLUren (1993), Euskal Gramatika Osoaren (2012) eta Artiagoitiaren (20??) lanetan agertzen diren azterketak eta proposamenak.

Euskal predikazioaren inguruan lan handia egin bada ere (Ikus Zabala 1993), ez dut uste, orain artean, adjektiboak ardatz dituen predikatuak sobera aztertu edo azaldu direnik. Berriki aipatu dudana bezala, Arteatx (2015) izan da horretan aritu den bakarra. Horregatik, lan hau beste hurbilketa saio bat bailitzan ulertu beharko litzateke.

Egitura formalari dagokionez, esan beharra dago, lan hau hainbat ataletan banatzen dela: lehendabiziko atalean (1. atala), modu orokorrean, adjektiboen inguruan

arituko naiz, zehazki, terminologiaz, definizioaz eta sailkapenez (1.1. atala). Lehen atal honetan, orain arte terminologian, definizioan eta sailkapenean egin diren proposamenak nire helburuetara egokitzen ahalegindu naiz. Bigarren atalean, aldiz, adjektiboaren inguruko orokortasunak baztertuko ditut eta adjektibo kalifikatzaileen deskribapenari emango diot lehentasuna: adjektibo kalifikatzaileen ezaugarri morfologiko (2.1. atala) eta sintaktiko (2.2) batzuk azalduko eta aztertuko ditut. Ezaugarri sintaktikoei dagokienez, adjektiboa izen sintagman (2.2.1. atala), adberbio edo aditzondo erabileran (2.2.2. atala) eta predikazioan (2.2.3. atala) agertzen delarik zein propietate edo ezaugarri dituen aztertuko eta deskribatuko dut. Dena den, lehen esan bezala, arretarik handiena adjektibo kalifikatzaileek predikazioan erakusten dituzten propietateetan edo ezaugarrietan jarriko dut: hasteko, lehen mailako predikazioaz edo predikazio osagarriaz (2.2.3.1. atala) arituko naiz eta ondoren, bigarren mailako predikazioaz edo adjuntu-predikatuez (2.2.3.2. atala). Lehen mailako predikazioaz ari naizela, adjektibo batzuk hartuko ditut lagin gisa (2.2.3.1.1. atala). Adjektibo horiek deskribatu eta azaldu ondotik, orokortasun batzuk (2.2.3.1.2. atala) aurkeztuko ditut lau aldagaiei begira: argumentu-egitura (2.2.3.1.2.1. atala), aditz nagusiarekiko kontrastea eta aditz laguntzailearen inguruko auzia (2.2.3.1.2.2. atala), artikularen auzia (2.2.3.1.2.3. atala) eta mailakatzaileen eta konparazio atzikiaren erabilera (2.2.3.1.2.4. atala). Ondoren, predikatu hauei dagokien analisi sintaktiko posible bat proposatuko dut (2.2.3.1.2.5. atala). Azkenik, lanean aipatutakoak kontuan harturik, zenbait ondorio (3. atala) aurkeztuko dut.

1. ADJEKTIBOAK

1. 1. Terminologia, definizioa eta sailkapena

Ezer baino lehenago, gustatuko litzaidake, lanean zehar erabiliko dudan terminologiaren inguruan ohar txiki bat egitea. Gramatika tradizionalari jarraiki, eskolan eta institutuan *adjektibo* hitzari erreferentzia egiteko *adjektibo* edo *izenondo* hitzak denok noiznahi eta nolannahi erabili ditugu. Euskal hizkuntzalariek ere *adjektibo* kategoriari erreferentzia egiteko bi termino hauek elkarren ordez erabiltzen dituzte.

Aitzitik, Artiagoitiak (20??) *adjektibo* deituraren alde egiten du, hiru arrazoi direla eta: alde batetik, nazioarteko hizkuntzalaritzan ez ezik euskararen inguruko erdaretan (frantsesez eta gaztelaniaz) ere *adjektibo* terminoa erabiltzen da. Bestalde,

izenondo hitzaren etimologiari begiratzen badiogu, adjektiboa “izenaren ondoan agertzen den hitza” dela esan daiteke. Edonola ere, ondoren ikusiko dugun bezala, adjektiboek askotan izenetik nahiko askea den banaketa erakusten dute. Azkenik, EGLUK (1993) *adjektibo* terminoa izenlagunetara zabaldu badu ere, Artiagoitiak (20??) ez du uste izenlagunak benetako adjektiboak direnik.

Esan gabe doa, lan honetan, Artiagoitiaren proposamenari lotuko natzaiola, hots, nik ere *adjektibo* terminoa erabiliko dudala. Hizkuntzalari honek eskaintzen dituen hiru arrazoi horiek oso garrantzitsuak eta indartsuak badira ere, lan honen helburuei begira, arrazoirik edo argudiorik “pisutsuena” bigarrena izango da. Izan ere, adjektiboaren inguruan sortu den nolabaiteko “mito” hori gainditzen saiatu nahiko nuke, alegia, adjektiboa izenaren ondoan agertzera mugatzen ez dela edo izena bakarrik modifikatzatzen duen funtzioa edo kategoria gramatikala ez dela erakutsi nahiko nuke. Horregatik, *izenondo* terminoaren erabilera baztertzea ezinbestekoa iruditzen zait.

Bestalde, euskal gramatika tradizionalan eta modernoan terminologiaren inguruan hartu diren erabakiek adjektiboaren definizioaren eta sailkapenaren inguruan egon diren proposamenak baldintzatu dituzte:

Ikuspuntu tradizionalaren arabera (EGLU 1993 & Euskal Gramatika Osoa² 2012), adjektiboa izen sintagmaren osagai nagusietako bat da³, izenaren inguruan agertzen dena eta izenari ñabarduraren bat eransten diona. Ildo honetatik, ikuspuntu tradizionalan, adjektiboak bi multzotan banatzen dira: izenlagunak (izenaren ezkerrean, adibidez, *zilarrezko belarritakoak*) eta izenondoak (izenaren eskuinaldean, etxe *polita*). Bistan denez, EGLUK (1993) eta EGOK (2012) kategoria gramatikala eta funtzioa berdintzen dituzte. Hori dela eta, *adjektibo* terminoa izenlagunetara ere zabaldu dute.

Dena den, Artiagoitiaren (20??) ustez, izenlagunak ez dira benetako adjektiboak. Baieztapen horren alde, hainbat argudio ematen ditu: lehena, izenlagunek ez bezala, izenondoek hainbat atzizki (-*txo*, -*ska*, -*ago*, -*egi*, -*en*) har ditzakete. Bigarrena, izenlagunek [izen sintagma + postposizio] egitura dutela esan daiteke. Beraz, izenlagunetan agertzen den izen sintagma hori singularra, plurala edo mugagabea izan

² Hemendik aurrera, Euskal Gramatika Osoa EGO laburduraren bidez adieraziko dut.

³ EGLUK (1993) eta EGOK (2012) lehentasuna definizio horri eman arren, adjektiboa adberbio gisa eta predikatu osagarrian ere ager daitekeela aipatzen dute.

daiteke. Izenondoetan ez da horrelakorik gertatzen. Hirugarrena, izenarekiko posizioari dagokio: izenondoak ez dira izenaren ezker aldean agertzen ahal eta izenlagunak ez dira izenaren eskuinaldean agertzen ahal. Laugarrenik, lehen adierazi bezala, izenlagunek ez bezala, izenondoek askotan izenetik autonomia den banaketa erakusten dute. Horrenbestez, Artiagoitiak (20??) sailkapen klasiko edo tradizional hori baztertzen du eta sailkapen horren ordean, bi motatako adjektiboak proposatzen ditu: erlazionalak eta kalifikatzaileak (Ikus 2. atala)

Azken batean, esan daiteke, Artiagoitiaren (2000, 20??) ikuspuntua ez dela sobera aldentzen, gramatika sortzaileak egiten duen kategoria gramatikalen sailkapenez. Izan ere, hizkuntzalari honek adjektiboa izena modifikatzen duen kategoria gramatikal lexikoa eta irekia dela aipatzen du. Kategoria lexikoa eta irekia izanik, adjektiboak hainbat ezaugarri bilduko ditu bere baitan: alde batetik, adjektiboen kopuru mugagabea da; beste aldetik, eduki semantiko argia edo berezko esanahia du; azkenik, osagarriren bat izateko aukera izan dezakete. Oro har, adjektibo sintagmak aditzen edo izenen osagarri gisa aurkituko ditugu. Dena den, 2.2.3. atalean erakusten saiatuko naizen bezala, adjektiboak edo adjektibo sintagmak predikatu izan daitezke eta beraz, osagarri zenbait hartzeko gai izan daitezke.

Terminologiarekin egin dudana bezala, definizioan eta sailkapenean ere, Artiagoitiaren proposamenari (20??, 2000) lotuko natzaio. Izan ere, lan honen helburuak Artiagoitiaren definizio kategorialaren eta *kalifikatzaile/erlazional* sailkapen bitarraren alde eta EGLUren definizio funtzionalaren eta *izenondo/izenlagun* sailkapen bitarraren kontra egitera behartzen nau ezinbestean. Egia da adjektiboa izen sintagmaren osagai nagusietako bat edo izena modifikatzen duen osagai bat izan daitekeela baina adjektiboa ez da horretara bakarrik mugatzen. Izan ere, lehen aipatu dudana bezala eta hurrengo ataletan azalduko dudana bezala, adjektiboa adverbio edo aditzondo gisa ez ezik predikatua ere izan daiteke.

2. ADJEKTIBO KALIFIKATZAILEAK

Adjektibo kalifikatzaileak eta hauek predikatuaren ardatz gisa erakusten dituzten propietateak lan honen funtsa eta oinarria izanik, aurrera egin baino lehenago, laburki bada ere, ezinbestekoa iruditzen zait ezaugarri morfologikoen eta sintaktikoen berri ematea.

Adjektibo kalifikatzaileek ezaugarri morfologiko (2.1. atala) eta sintaktiko (2.2. atala) bereziak izan ohi dituzte.

2.1. Adjektibo kalifikatzaileen ezaugarri morfologikoak

Inguruko hizkuntza erromantzeetan, esate baterako, frantsesez eta gaztelaniaz, artikularen, adjektiboaren eta izenaren artean, bada genero eta numero komuntadurarik:

- | | |
|--|---|
| (1) La casa es bonita. | (2) La maison est belle. |
| (3) Esas montañas son bonitas. | (4) Ces montagnes sont belles. |
| (5) El perro pequeño cruzó la carretera. | (6) Le petit chien a traversé la route. |
| (7) Los chicos guapos no son simpáticos | (8) Les jolis garçons ne sont pas
sympathiques. |
| (9) Las chicas guapas no son simpáticas | (10) Les belles filles ne sont pas
sympathiques. |

Euskaraz numero komuntadura badago ere, ez dago genero gramatikalik. Beraz, adjektiboek forma bera izango dute maskulinoan eta femeninoan.

- (11) Etxe hori polita da.
- (12) Mendi horiek politak dira.
- (13) Txakur txikiak errepidea gurutzatu zuen.
- (14) Mutil ederrak ez dira xarmantak.
- (15) Neska politak ez dira xarmantak.

Hala ere, adjektibo kalifikatzaileen ezaugarrien artean gehien aipatzen dena, mailakatzaileak eta konparazio atzizkiak hartzeko gaitasuna da. EGLUk (1993) eta Artiagoitiak (20??) adierazi bezala, fonetika-fonologiak, morfologiak eta sintaxiak eskaintzen dituzten baliabideak erabiliz, adjektibo kalifikatzaileak mailakatzea posible da.

Lehenik eta behin, adjektiboak fonetikoki eta fonologikoki mailakatzeko, euskarak hainbat baliabide ditu eskuragarri: alde batetik, hizkera mintzatuan, azentua eta silaba erabiliz, bokalak luzatzea (16); bestetik, kontsonanteak nabarmentzea (17); eta azkenik, bustidura adierazkorraren erabiltzea (18).

(16) Miren pooolita da!

(17) Harrroa da Mikel!

(18) Semeari tren ttiki/nimiño bat opari diot.

Bigarrenik, morfologiak eskaintzen dituen baliabideen bidez adjektiboak mailakatzeko posible da: atzizki txikigarrien (adb. *-ska, -t(x)o*) eta handigarrien (adb. *-kote -tzar*) bidez edo bikoiztasun indargarrien bidez (*polit-polita*).

Azkenik, mailakatze sintaktikoan, konparazioa eta aditzondoek edo zenbatzaileek egiten duten mailakatzea aipa daitezke:

Superlatibo erlatiboa egiteko, *-en* eta *-rik* atzizkiak erabiltzen dira; adjektibo konparatiboak *-ago* atzizkiaren bidez egiten dira. Dena den, badira beste zenbait esapide ere (*gero eta...-ago, orduan eta...-ago*); Gehiegizko maila *-egi* atzizkiaren bidez egiten da eta berdintasunezko konparazioa *bezain, hain, horren* eta *honen* bidez.

Aditzondoen eta zenbatzaileen, besteak beste, *oso, guztiz, sobera, nahiko, aski, dexente, samar* eta *batere* bidez adjektibo kalifikatzaileak mailaka daitezke.

Dena den, 2.2.3. atalean erakusten ahaleginduko naizenez, lehen mailako predikatuetan edo predikatu osagarrietan, zenbait adjektibo kalifikatzailek mailakatzailerak eta konparazio atzizkiak hartzeko gaitasun hori mugaturik izaten dute. Beraz, ezaugarri honi dagokionez, adjektibo kalifikatzaile arruntetatik zertxobait aldentzeko dira.

Adjektibo kalifikatzaileen ezaugarri morfologikoak zeintzuk diren azaldu ondoren, hurrengo atalean, adjektibo kalifikatzaileen ezaugarri sintaktikoak zeintzuk diren azaltzen saiatuko naiz.

2.2. Adjektibo kalifikatzaileen ezaugarri sintaktikoak

Lehen laburki aipatu dudan bezala, euskal hizkuntzalaritzan, lan teoriko eta deskriptibo gehienetan, adjektiboa izenaren ondoan agertzeraz mugatzen den modifikatzailea bailitzan aztertu da. Dena den, atal honetan, frogatu nahiko nuke, adjektiboak izenetik nahiko askea den banaketa erakusten duela. Izan ere, adberbio edo aditzondo gisa ager daitezke edo predikatu baten ardatza izan daitezke.




Horregatik, hain zuzen, ezinbestekoa iruditzen zait, adjektibo kalifikatzailearen hiru erabilera edo funtzio hauek, laburki bada ere, deskribatzea, azaltzea eta aztertzea. Lehenik eta behin, adjektiboaren ohiko funtzioa azalduko dut, alegia, izen-sintagmaren barruan dagoelarik, adjektiboak zein ezaugarri edo propietate dituen (2.2.1. atala); bigarren atalean, adberbio edo adberbio gisa erabiltzen delarik, adjektiboaren ezaugarriak edo propietateak zeintzuk diren azalduko dut (2.2.2. atala); azkenik, hirugarren atalean, adjektiboa predikatu baten ardatz gisa agertzen delarik zein ezaugarri eta propietate dituen azaltzen ahaleginduko naiz (2.2.3. atala), bai lehen mailako predikazioari edo predikatu osagarri dagokienez (2.2.3.1. atala) baita bigarren mailako predikazioari edo predikatu adjuntuei dagokienez (2.2.3.2. atala) ere.

2.2.1. Adjektibo kalifikatzaileak izen sintagman

Lehen esan bezala, adjektiboak izen sintagmaren barnean ager daitezke: izenaren eskuinaldean eta zenbatzaile edo mugatzaile baten ezker aldean (*etxe gorri hori, sukalde txikia*).

Izen sintagma baten barnean, adjektibo bat baino gehiago agertzen delarik, hiztunak garrantzitsutzat jotzen duen hori izenaren ondoan agertuko da (EGLU 1993). Hala ere, adjektiboek kategoria kognitiboen edo semantikoaren arabera hierarkia unibertsal bati jarraitzen diotela dirudi (Artiagoitia 20??). Gai honen inguruan iritzi eta proposamen ugari badaude ere, *nolakotasuna>neurria>forma>kolorea>jatorria* da onartuenetako bat.

Bestalde, esan beharra dago, izen sintagmaren barnean agertzen direlarik, adjektiboak izenarekiko duen harreman sintaktikoari dagokionez, euskal hizkuntzalarien artean eztabaida teorikoa badela. Batzuk izen sintagmaren adjuntutzat hartzen dute (19); beste batzuk, aldiz, izen sintagma osagarri hartzen duen burutzat (20); eta azkenik, beste batzuk izenaren osagarritzat (21)




2.2.2. Adjektibo kalifikatzaileak adberbio edo aditzondo bezala

Artiagoitiak (20??) azaldu bezala, adjektiboa adberbio edo aditzondo gisa erabil daiteke. Kasu honetan, adjektiboak moduzko adberbio edo aditzondo baten balioa hartuko du.

Adjektiboaren erabilera honetan, muga dialektalek badute zer esanik. Izan ere, hegoaldeko hiztunek adjektiboa huts-hutsean aditzondo edo adberbio gisa erabili arren, iparraldekoek askotan aditzondoaren edo adberbioaren balioa markatzeko *-ki* atzizkiaren beharra ikusten dute.

Adjektiboaren erabilera edo funtzio honen bi adibide *Amaia luze mintzatu zen* eta *Amaia argi mintzatu zen* izan daitezke. Kasu honetan, analisi sintaktikoari dagokionez, suposatzen dut, *luze* edo *argi* bezalakoak adjektibo sintagma gisa aztertu beharko lirатеkeela (X marra teoriak kategorian du oinarrian, ez funtzioan) eta aditz sintagmaren adjuntu posizioan (adjektibo hauek ezabatzen direlarik, ñabardura semantikoren bat galdu arren, perpausak gramatikala izaten jarraitzen du) kokatu beharko lirатеkeela.



2.2.3. Adjektibo kalifikatzaileak predikazioan

Lehen esan bezala, adjektiboa izen sintagman eta adverbio edo aditzondo erabileran agertzeaz gain, badu hirugarren erabilera edo funtzio garrantzitsu bat, hain zuzen, predikatu baten ardatza edo hautazko osagaia izatea. Hain zuzen ere, predikatuen artean, bi multzo bereiz daitezke (Artiagoitia ?? & Zabala 1993): lehen mailako predikatuak edo predikatu osagarriak eta bigarren mailako predikatuak edo predikatu adjuntuak.

Atal honetan, beraz, adjektiboen hirugarren erabilera edo funtzio hau aztertzen eta azaltzen ahaleginduko naiz, hots, lehen eta bigarren mailako predikazioan adjektiboen portaera zein den eta beraz, zein propietate edo ezaugarri erakusten duten deskribatzen.

Lehenik eta behin, lehen mailako predikazioaz edo predikazio osagarriaz arituko naiz, ondoren, bigarren mailako predikazioarekin edo predikatu adjuntuekin jarraituko dudalarik. Izan ere, lehen esan bezala, nire helburua, adjektibo kalifikatzaileak ardatz duen lehen mailako predikazioaren edo predikazio osagarriaren inguruan sakontzea izanik, bigarren mailako predikazioak "apunte" hutsa izan nahi du.

2.2.3.1. Lehen mailako predikatuak edo predikatu osagarriak⁴

Lehen mailako predikatuak edo predikatu osagarriak halabeharrezkoak edo ezinbestekoak direnak dira, ezabatzen direlarik, perpaus ez-gramatikalak ematen dituztenak.

Hizkuntzalaritzan predikazioa aipatzen edo azaltzen delarik, aditzari ematen zaio garrantzirik handiena. Gauza jakina da, aditzek ISak, DSak, AdjSak, perpausak (esan nahi baita, KonpS) eta perpaus txikiak hautatu ditzaketela. Gutxiagotan aipatzen badira ere, PSak, ISak eta AdjSak ere predikatu izan daitezke.

Hain zuzen ere, hurrengo ataltxoan, adjektibo kalifikatzaileak ardatz dituen predikazioa, hots, adjektibo kalifikatzaileak predikatu direlarik zein propietate edo ezaugarri dituzten aztertzen eta azaltzen ahaleginduko naiz. Horretarako, adjektibo kalifikatzaile zenbait hautatu dut: *ziur, zail, erraz, gaitz, zilegi, beharrezko, pozgarri, on, hobe, harrigarri, zale, jakitun* eta *posible*.

Zergatik hautatu ditut adjektibo kalifikatzaile hauek? Alde batetik, adjektibo kalifikatzaile hauek aditz nagusiari dagokion posizio sintaktikoan agertzen direlako eta aditz nagusien zenbait propietate erakusten dituztelako, batez ere, argumentu-egiturari dagokionez. Beste aldetik, adjektibo kalifikatzaileak izanik ere, adjektibo kalifikatzaile "arruntek"⁵ ez dituzten zenbait propietate dituztelako, batez ere, mailakatzaileen onargarritasun mailari begira.

Lehenik eta behin, berriki aipatutako adjektibo horiek banan-banan eta ahal delarik multzoka deskribatuko ditut, lau aldagai aintzat harturik: argumentu-egitura, artikulua hartzeko aukera, hautatzen dituzten aditz laguntzaileak eta mailakatzaileak onartzeko aukera (2.2.3.1.1. atala). Bigarrenik, ezaugarri eta propietate orokor batzuen berri ematekotan, adjektibo kalifikatzaile guztiek konpartitzen dituzten ezaugarriak batera jarriko ditut (2.2.3.1.2. atala) eta analisi sintaktikoari begira proposamen bat egingo dut (2.2.3.1.2.5. atala).

⁴ Atal honetako adjektiboei dagozkien adibideak *Ereduzko Prosa Gaur*-etik atera ditut. Batzuk bere horretan utzi ditut, beste batzuk, aldiz, azaldu nahi dudanaren arabera, egokitu edo moldatu behar izan ditut. Bide batez, *Ereduzko Prosa Gaur* EPG laburduren bidez adieraziko dut.

⁵ Hemen egin dudana baieztapena ez da erabat egia. Izan ere, adjektibo kalifikatzaile guztiak, baita sinpleenak ere, predikatu gisa erabil daitezke eta argumentu bat gutxienez hartzen dute. Konpara itzazu "Jon polita da" vs. "Jon erori da". Bi kasu hauetan, *Jon* predikatuaren argumentu bakarra da; lan honetan, adjektibo kalifikatibo berezi batzuk hautatu ditut eta horregatik ez ditut besteak aipatu eta azaldu.

2.2.3.1.1. Aztergai batzuk

Esan bezala, lehen mailako predikazioan adjektibo kalifikatzaile batzuen propietateak deskribatzen ahaleginduko naiz, argumentu-egiturari, aditz laguntzaileen hautespenari, mailakatzailen eta konparazio-atzizkien onargarritasun mailari eta artikularen erabilerari dagokienez.

2.2.3.1.1.1 Ziur adjektiboa

Zabalaren (1993) iritziz, *ziur* adjektibo kalifikatzaileak eta predikatuak sortzen dituen argumentu-egiturak oso konplexuak dira. Bi aditz laguntzaileekin ager daiteke, hain zuzen, *izan* eta *egon*-ekin. *Ziur* adjektiboak bi aditz laguntzaile hauekin erakusten duen portaera ere desberdina da. Izan ere, *izan* aditz laguntzailearekin agertzen delarik, subjektu funtzioa hartuko duen DS bat (23) edo KonpS bat (24), alegia, perpaus konpletibo bat hautatuko du. Bistan denez, *ziur* predikatuak gaiaren θ -errola duen argumentu bat bakarrik azpikategorizatu dezake. Kasu honetan, hurrengo bi adibideek erakusten duten bezala, *ziur* adjektiboa artikularekin edo artikulurik gabe ager daiteke, beraz, +/- *artikulua* tasuna hautazkoa dela esan daiteke.

(23) Hura *ziur*(ra) da.

(24) Miren joango dela *ziur*(ra) da.

Aitzitik, *egon* aditz laguntzailearekin agertzen delarik, bi argumentu azpikategorizatuko ditu: subjektu funtzioan, DS bat hautatuko du eta osagarri funtzioan, KonpS (25) bat (perpaus konpletibo bat) edo PS (26) bat (instrumentalean). Konplementatzaile edo postposizio sintagma hori agertu ezean, perpausa ez da gramatikala izango. Beraz, egilearen edo esperimantatzailearen θ -errola duen eta gaiaren θ -errola duen bi argumentu azpikategorizatuko ditu. Bestalde, hurrengo bi adibideek erakusten duten bezala, *egon* aditz laguntzailea ondoan duela, *ziur* adjektiboak ez du artikulurik onartzen.

(25) Markel Julen etorriko dela *ziur*(*ra) dago.

(26) Markel horretaz *ziur*(*ra) dago.

Era berean, nire ustez, *ziur* adjektiboak ez du murriztapen handirik erakusten mailakatzailen onartzeko, nagusiki, *egon* aditz laguntzailearekin agertzen delarik:

(27) Markel Julen etorriko dela oso/ biziki/ zeharo/ erabat ziur dago

(28) Markel horretaz oso/biziki/zeharo/erabat ziur dago

Gauzak oso bestelakoak direla ematen du *ziur* adjektibo kalifikatzailea *izan* aditzarekin agertzen delarik. Dena den, ez naiz ausartzen ez-gramatikala denez esaten. Izan ere, hiztun batzuk onartuko luketelakoan nago.

(29) ?/*Hura oso/biziki/zeharo/erabat ziur(ra) da.

(30) ?/*Joango dela oso/biziki/zeharo/erabat ziur(ra) da.

2.2.3.1.1.2. *Erraz, zail eta gaitz* adjektiboak

Semantikoki antonimoak izanik ere, predikazioari dagokionez, *erraz*, *zail* edo *gaitz* adjektibo kalifikatzaileek jokabide bertsua erakusten dute:

(31) [Mikelen arrazoia ulertzen] erraz(a) da.

(32) [Euskararen alde horrelako lan bikain eta handia egin duen beste bat aurkitzen] zail(a) da.

(33) [Proposamen honek gramatika askoz konplexuago bat dakarrela erakustea] erraz(a) da.

(34) [Arropa eguzkitan lehortzea] zail(a) da.

(35) [Jokalaria guztiek entrenatzailearengan sinestea eta onartzea] gaitz(a) da.

(36) Gaitz(a) da [esaten diktadura biei zien herra tesia argitaratzeko nahikoa motibo sendoa zitekeen].

(37) Ariketa hau zail(a) da

(38) Azterketa erraz(a) da

(39) Jokatu edo ez jokatu, [sasoia] gaitz(a) da.

Adibide hauetan ikus daiteke, *erraz*, *zail* edo *gaitz* adjektiboak predikatuak direla. Predikatuak izanik, argumentu-egitura jakin bat dute. Hiru predikatu hauek gaiaren θ -errola duen argumentu bat azpikategorizatzen dute. Argumentu hori DS bat (37, 38 eta 39 adibideak) edo KonpS bat izan daiteke (31, 32, 33, 34, 35 eta 36

adibideak), hain zuzen, *-t(z)ea* nominalizazio bat edo *-t(z)en* menpeko perpaus konpletibo bat. Determinatzaile edo konplementatzaile sintagma izanik ere, argumentu horrek subjektuaren funtzioa beteko du.

Gainera, aurreko adibideek erakusten duten bezala, *erraz* eta *zail* adjektibo kalifikatzaileak *izan* aditz laguntzailearekin agertzen dira; *egon* aditz laguntzailearekin agertzea posible bada ere, ez dirudi asko erabiltzen denik. *Egon* aditz laguntzailearekin ager daitekeen bakarra *zaila* adjektibo kalifikatzailea da.

(40) [Aurreikuspen zehatza egiten] *zaila/*erraza/*gaitz* dago.

(41) [Espetxean hori jarraitzea] *zaila/*erraza/*gaitz* dago.

Gaitz adjektiboa ere gehienetan *izan* aditz laguntzailearekin agertu arren, hurrengo adibideak (42) erakusten du, nor-nori aditz jokoan, **edin* aditz laguntzailearekin agertzea posible dela. Beraz, *gaitz* adjektiboak gaiaz gain, esperimintatzailea den argumentu bat ere azpikategoriza dezake, argumentu hori DS bat delarik.

(42) Ez dute inolako eskalarik adierazten, eta, haitz blokeak direla agerikoa den arren, ikusleari oso gaitza zaio [inolako neurririk kalkulatzea].

Mailakatzaileei dagokienez, ez dut uste murriztapenik erakusten duenik *izan* aditz laguntzailearekin agertzen delarik. *Egon* aditz laguntzailearekin arazo gehiago ikusten ditut. Horrenbestez, kasu honetan, *ziur* adjektibo kalifikatzaileak bezala jokatzeko duela esan daiteke:

(43) [Euskararen alde horrelako lan bikain eta handia egin duen beste bat aurkitzen] oso/biziki/zeharo/erabat *zail(a)* da.

(44) [Aurreikuspen zehatza egiten] *oso/biziki/zeharo/erabat *zaila* dago.

Gaitz adjektibo kalifikatzailea, aldiz, *oso* mailakatzailearekin bakarrik agertzen dela esan daiteke:

(45) Bederatzi jardunaldiren faltan bigarrena izatea oso/*?erabat/*?zeharo gaitza da.

(46) [Jokalaria guztiek entrenatzailearengan sinestea eta onartzea] oso/*erabat/*?zeharo? gaitza da.

Azkenik, ikus daiteke, *erraz*, *zail* eta *gaitz* adjektiboak artikulurik gabe edo artikularekin ager daitezkeela, beraz, artikularen erabilera hautazkoa dela ematen du. Hala ere, artikularekin gehiago agertzen dela dirudi.

Ildo honetatik, nabarmentzekoa da, *erraz*, *zail* eta *gaitz* adjektiboek artikulua erabiltzean edo ez erabiltzean muga dialektalek ez dutela sobera garrantzirik. Artikuluarekin agertuko da bai hegoaldean baita iparraldean ere. Beharbada, hegoaldean, artikulua ez erabiltzea maila jasoarekin lotzen da.

2.2.3.1.1.3. *On* eta *hobe* adjektiboak

Predikazioari dagokionez, *on* adjektiboak eta bere konparatiboak, hots, *hobe*-k ere antzeko ezaugarriak erakusten dituzte:

(47) *On(a)* da [gisa horretan Euskal Herriak bere burua ager dezan eta bere itxura hoberena erakuts dezan].

(48) [Norbera baino jakintsuagoak direnen pentsamendua ezagutzea] *on(a)* da.

(49) [Prestakuntza fisikoari gehiago eman diezaiozun] *hobe* da.

(50) [Familietakoa transmisioa atxikitzea] *hobe* da.

Lau adibide hauetan ikus daiteke, *on* eta bere konparatiboa den *hobe* adjektiboak predikatuak direla. Izan ere, bi predikatu hauek gaiaren θ -errola duen argumentu bat, alegia, KonpS bat (*-t(z)ea* nominalizazioa edo *-(e)n* (subjuntiboa) morfema duen perpaus konpletibo bat) azpikategorizatuko du. Gainera, gutxiagotan bada ere, argumentu gisa, DSak ere ager daitezke, nagusiki, *hobe* adjektibo kalifikatzailearekin eta egitura konparatiboetan.

(51) Prestakuntza fisikoa *hobe* da morala baino.

(52) Familietakoa hizkuntza transmisioa *hobe* da eskolakoa baino.

Gainera, aurreko adibideetan ikus daitekeen gisan, *on* adjektibo kalifikatzailea *izan* aditz laguntzailearekin bakarrik ager daiteke. Aitzitik, *hobe* adjektiboa *izan* aditz laguntzailearekin ez ezik **edun* aditz laguntzailearekin ere ager daiteke (azkeneko kasuan gutxitan izan ohi da). Kasu honetan, egilearen edo esperimintatzailea den argumentu bat azpikategorizatuko du eta argumentu hori DS bat izaten da.

(53) [Beldurrik gabe jokatzea] hobe dut.

(54) [Hementxe egon] hobe dut.

Era berean, artikularekin *on* adjektiboa bakarrik ager daiteke. *Hobe* adjektiboak ez du artikulurik onartzen, determinatzaile sintagmak osagarri gisa hartzen dituzten konparazioak aipatu ezean (55,56).

(55) Hori gurpila baino irtenbide hobea da.

(56) Kalkulu aritmetiko bizkorrak egiteko, konputagailu elektronikoa garuna baino hobea da.

Bestalde, *hobe* adjektiboak ez ditu mailakatzaileak onartzen, ziur aski, semantikoki, bere baitan nolabaiteko mailakatzea biltzen duelako. *On* adjektiboak, aldiz, erraztasun gehiago erakusten du. Dena den, ez naiz ausartzen gramatikala edo onargarria izan daitekeen esatera.

(57) ?Oso/biziki/erabat/zeharo on(a) da [gisa hortan Euskal Herriak bere burua ager dezan eta bere itxura hoberena erakuts dezan].

(58) ?[Norbera baino jakintsuagoak direnen pentsamenduaren ezagutzea] oso/biziki/erabat/zeharo on(a) da.

2.2.3.1.1.4. Zilegi adjektiboa

Zilegi adjektibo kalifikatzailea ere predikatua dela esan daiteke, ondorioz, argumentu-egitura jakin bat du, hain zuzen, gaiaren θ -errola duen argumentu bat hautatzen du. Argumentu hori KonpS bat izaten da, hots, *-t(z)ea* nominalizazio bat. Dena den, gutxitan bada ere, DSak azpikategorizatu ditzake. Bi sintagma mota hauek subjektuaren funtzioa betetzen dute.

(59) [Banaketa operazioa egitea] zilegi(a) da.

(60) [Azpiegituren inguruan herritarrei iritzia eskatzea] zilegi(a) da.

(61) [Lege esparruaren aldaketa prozesatzea] zilegi(a) da.

(62) Ez dut gaitzetsi nahi ama baten arretari, ausaz, zilegi zaion [deliberiorik]

Bistan denez, *zilegi* adjektiboa artikularekin edo artikulurik gabe agertu daiteke. Dena den, EPGeko korpusean, artikulurik gabe gehiago agertzen da artikularekin baino. Hortaz, +/- artikulua tasuna hautazkoa dela esan genezake, salbu eta, **edin* aditz laguntzailearekin agertzen delarik (62).

Aditz laguntzaileei dagokienez, esan beharra dago, gehienetan *izan*-ekin agertzen bada ere, **edin* eta **edun* aditz laguntzaileekin agertzea ere posible dela:

(63) Ez dut gaitzetsi nahi ama baten arretari, ausaz, zilegi(*a) zaion [deliberiorik].

(64) Aitor dizut nire ustean[harritzea eta deitoratzea] zilegiago nukeela nik zuk baino.

Azkenik, mailakatazaileei dagokienez, esan beharra dago, *oso*, *guztiz* edo *erabat* bezalakoak onartzen dituela baina ez dutela maiztasun handirik erakusten EPG-n. (64) adibidean ikusi dugun bezala, atzizki konparatiboak ere onartu ditzake.

(65) Oso zilegi(a) da [planteatzea Nafarroa eta Iparraldearekin batera egitea hori].

(66) [Euskararen sustapena] erabat zilegi(a) da.

(67) [Alderdi batek beste alderdi baten boto-emaileak bereganatzeko bokazioa izatea] guztiz zilegi(a) da.

2.2.3.1.1.5. Harrigarri eta beharrezko adjektiboak

Predikatua izanik, *harrigarri* eta *beharrezko* adjektiboek argumentu-egitura jakin bat dute: gaiaren θ -errola duen argumentu bat azpikategorizatzen dute. Kasu honetan ere, bi aukera daude: alde batetik, DS bat (73 eta 74 adibideak); beste aldetik, *-t(z)ea* nominalizazio bat edo *-(e)n* menpeko perpaus konpletibo bat (68,69,70, 71 eta 72 adibideak), azken batean, KonpS bat. Gainera, *beharrezko* adjektibo kalifikatzaileak *-(e)n* (subjuntiboa) menderagailua duen perpaus konpletibo bat ere hautatu dezake (72). Determinatzaile sintagma edo konplementatzaile sintagma izanik ere, subjektuaren funtzioa beteko du.

(68) Harrigarri(a) da [Lucio Urtubia hemen ezagunegia ez izatea]

(69) Harrigarri(a) da [mendez mendez zonbat makur jasan den]

(70) [Hainbat aztarna batera aztertzea] beharreko(a) da.

(71) [Espainia eta Frantziarekin hitz egiteko nazio ordezkariak osatzea] beharrezko(a) da.

(72) [Justizia-administrazioan euskararen normalizazioan urrats berriak egin daitezkeen] beharrezko(a) da.

(73) [Autodeterminazioa] beharrezkoa da.

(74) [Ondasunak apurtzearen salaketa] harrigarria da.

Harrigarri eta *beharrezko* adjektibo kalifikatzaileek onartuko duten aditz laguntzaile bakarra *izan* da. Era berean, artikuluekin edo artikulurik gabe agertu daiteke. Dena den, EPG-n aldaera artikuludunak gehiago agertzen dira ez-artikuludunak baino. Azkenik, mailakatzailerik dagokienez, esan daiteke, maiztasun handiz ez bada ere, onartu ditzaketela:

(75) Oso harrigarri(a) da [haren emaztearen portaera].

(76) [Ekonomialariek lanabes horri balioa ematea] zeharo harrigarri(a) da.

(77) Historian aurrera egiteko oso beharrezko(a) da [zer eta nola gertatu zen jakitea].

(78) [Tokian tokiko egoera zein den jakitea] guztiz beharrezko(a) da.

2.2.3.1.1.6. Zale adjektiboa

Zale adjektibo kalifikatzailea ere predikatua dela esan daiteke, ondorioz, argumentu-egitura jakin bat du, hain zuzen, gaiaren θ -errola duen argumentu bat azpikategorizatzen du. Argumentu hori PS (genitiboan) bat (79), DS bat (80) eta KonpS (81,82) bat izan daiteke, hain zuzen, *-t(z)en* eta *-t(z)eko* menderagailua izango duen menpeko perpaus bat. Beraz, *zale* adjektiboak argumentu-egitura aberatsa eta anitza duela esan daiteke. Argumentu hauek osagarriaren funtzioa betetzen dute.

(79) Markel [Bartzelona taldearen] zale(a) da.

(80) Haren bihotz handia ezagutu zutenek ongi jakin zuten zein [aske eta askatasun] zale(a) zen.

(81) Ez, ez diat sinesten, hi [ez hintzen-eta iraganari begiratzeko] zale(a).

(82) Zale(a) duzu guztiz eldarnioa halako [agerkari mamigabeak irudikarazten].

Zale adjektiboa artikularekin edo artikulurik gabe agertu daiteke. Dena den, EPGecko korpusean, artikularekin gehiago agertzen da artikulurik gabe baino.

Aditz laguntzaileei dagokienez, esan beharra dago, gehienetan *izan*-ekin agertzen bada ere, **edun* aditz laguntzailearekin agertzea ere posible dela:

(83) *Zale(a)* duzu guztiz eldarnioa halako agerkari mamigabeak irudikarazten.

Azkenik, mailakatzailen artean, *oso*, *guztiz* edo *erabat* bezalakoak onartu ditzake baina EPGen ez duela maiztasun handirik erakusten. Beraz, horrek esan nahiko luke, euskal hiztunarentzat *zale* bezalako adjektibo kalifikatzaile batekin mailakatzailak erabiltzea nahiko arrotz izan daitekeela.

2.2.3.1.1.7. Jakitun adjektiboa

Jakitun adjektibo kalifikatzailea ere predikatua da eta predikatua izanik, argumentu egitura jakin bat du: gaiaren θ -errola duen argumentu bat azpikategorizatzen du. *Zale* adjektiboarekin gertatzen den bezala, *jakitun* adjektiboarekin ere, anitza da aukera: lehenik eta behin, PS bat instrumentalean (84) edo genitiboan (85) eta KonpS bat (86), hain zuzen, *-ela* menderagailua duen menpeko perpaus konpletibo bat.

(84) [Hauteskunde garaian atalkako elkarrizketa sendo bat eratzeak dituen zailtasunez] *jakitun* gara.

(85) Arazoak badaude eta herritarrak, hainbat egituratan, [auzotegi bakoitzean pairatzen duten egoeraren] *jakitun* dira.

(86) Berradiskidetzeko borondatea eskatzen du eta *jakitun* izatea [hau bereziki norberaren barruan eraikitzen dela].

Orain arte aztertu ditudan hiru ezaugarriei dagokienez, hots, aditz laguntzaileei, artikuluei eta mailakatzailaei dagokienez, esan beharra dago, murrizpen handiak erakusten dituela. Izan ere, ez du artikulurik onartzen (114) *izan* aditz laguntzailearekin bakarrik ager daiteke (87,88 eta 89 adibideak) eta mailakatzailak oso gutxitan onartuko ditu (89).

(87) Informazio on askoren *jakitun(*a)* da

(88) Aurreko denboraldi osoan irabazitakoa bi partidatan bakarrik gal daitekeela jakitun da.

(89) Gainerako alderdiak ere horretaz oso jakitun dira.

2.2.3.1.1.8. *Posible* adjektiboa

Posible adjektibo kalifikatzailea predikatua da eta predikatua izanik, argumentu-egitura jakin bat du: gaiaren θ -errola duen argumentu bat azpikategorizatzen du. Argumentu hori DS bat (90), KonpS bat (91) eta azkenik, PS bat sozietiboan (92) izan daiteke. Determinatzaile eta konplementatzaile sintagma hori subjektua bada ere, postposizio sintagma hori osagarria da.

(90) [Gatazkaren konponbide demokratikorako akordioa] posible(a) da.

(91) Negoziazio mahaian, [Madrilek beste jarrera bat izatea] posible(a) da.

(92) [Horrelako jarrera duen alderdi batekin] posible(a) da.

Artikuluarekin edo artikulurik gabe ager daiteke. Hala ere, EPG-en artikulurik gabeak artikuludunak baino gehiago agertzen dira.

Aditz laguntzaileei dagokienez, esan beharra dago, ia beti, *izan* aditz laguntzailearekin agertzen dela. Hala ere, **edun* aditz laguntzailearekin agertzea ere posible da (93) adibideak erakutsi bezala:

(93) Bizi izan bazara era narras, era alproja batean posible duzu [aldatzea], nahiz eta 41 urte izan.

Mailakatzailen onargarritasun mailari dagokionez, ikus daiteke, *posible* adjektiboarekin mailakatzailak onartzea posible dela baina ez direla maiztasun handiz agertzen:

(94) Oso posible dela horietan proposamena atzera botatzea.

(95) Guztiz posible da Europako edo Estatuko egitasmoetan parte hartzea.

2.2.3.1.1.9. *Pozgarri* adjektiboa

Pozgarri adjektibo kalifikatzailea predikatua da eta predikatua izanik, argumentu-egitura jakin bat du: gaiaren θ -errola duen argumentu bat azpikategorizatzen

du. Argumentu hori DS bat (96) edo KonpS bat *-(t(z)ea* menderagailua duen (97) nominalizazioa) edo menpeko perpaus erlatibo bat (98)) izan daiteke.

(96) [Albiste hori] *pozgarri(a)* da.

(97) Oso *pozgarri(a)* da [hautatzaile guztiek niregan konfiantza izatea].

(98) Muntaia hau beste behin [plazaratu izana] *pozgarri(a)* da.

Artikuluarekin edo artikulurik gabe ager daiteke. Dena den, EPGeko korpus zabalean, artikuluarekin gehiago agertzen da artikulurik gabe baino.

Izan aditz laguntzailearekin agertuko da ia beti. Hala ere, nor-nori aditz jokoan, **edin* aditz laguntzailearekin agertzea ere posible da. Kasu honetan, *pozgarri* adjektiboak gaiaren eta esperimantatzailearen θ -errolak dituen bi argumentu azpikategorizatuko ditu, hurrenez-hurren, konplementatzaile sintagma bat *-(t(z)ea* nominalizazioa) eta DS bat.

(99) Pozgarri zaio gizonari horretarako indarrak bildu dituela ikustea.

Azkenik, esan beharra dago, mailakatzaileak onartzeko ez duela ia murriztapenik erakusten:

(100) Oso *pozgarria* da zure herrialdea ohore guztiekin uztea.

(101) Guztiz *pozgarria* izan da enpresa horrekin elkarlanean aritzea eta haren lana aberasten ikusi izana.

(102) Zeharo *pozgarria* da Ministerioarentzat honako albiste honen berri ematea.

2.2.3.1.2. Orokortasun zenbait

Orain arte, adjektibo kalifikatzaile batzuk banan-banan eta zenbait kasutan multzoka edo taldeka aztertzen eta azaltzen ahalegindu naiz. Ikusi dugunez, argumentu egituran, aditz laguntzaileen hautespenean, artikuluaren eta mailakatzaileen erabileran, antzeko ezaugarriak eta propietateak erakusten dituzte, ondorioz, adjektibo horien deskribapenak zenbait orokortasunez ohartzeko aukera ematen du.

2.2.3.1.2.1. Argumentu-egitura

Adjektibo kalifikatzaile hauek predikatuak dira eta predikatuak izanik argumentu egitura jakin bat dute. Oro har, predikatu hauek gaiaren θ -errola duen KonpS *(-e)la, -(e)n, -t(z)ea...* menderagailua duen menpeko perpausa bat, oro har, konpletibo edo nominalizazio bat) bat hautatuko dute (103). Adjektibo batzuk ere DSak (104) hautatu ditzakete. Determinatzaile edo konplementatzaile sintagma hori beti perpaus nagusiaren subjektua izan ohi da. Bestalde, gutxitan bada ere, adjektibo kalifikatzaile batzuk PSak (genitiboa, sozietiboa eta instrumentala) hautatu ditzakete (105). Postposizio sintagma horiek adjektiboaren osagarriak izan ohi dira. Har bitez ordezkari gisa *zilegi, zail* eta *ziur* adjektiboak

(103) [Taberna honetan erretzea zilegi]_{KompS} da.

(104) [Azterketa hori]_{DS} zaila da

(105) Mikel [ABBA taldearen]_{PS} zalea da.

2.2.3.1.2.2. Aditz nagusiarekiko kontrasteaz eta aditz laguntzailearen inguruko auziaz.

Adjektibo kalifikatzaile hauek aditz nagusiari dagokion posizio sintaktikoan agertzen dira, alegia, aditz laguntzailearen aurretik. Ez hori bakarrik, aditz nagusien zenbait propietate edo ezaugarri erakusten dituzte, batez ere, argumentu-egiturari dagokionez.

Lehen esan bezala, aditz batek determinatzaile (106), postposizio (107) eta konplementatzaile (108) sintagmak eta perpaus txikiak (109) hautatu ditzake. Beraz, aditz batek hautatu dezakeen kategoria gramatikalen zerrenda zabala eta anitza dela esan daiteke. Gainera, aditz bakar batek aldi berean argumentu bat baino gehiago azpikategorizatu dezake (106,107,108 eta 109 adibideak):

(106) Amak aitari ogia **ekarri** dio.

Ekarri: <egilea, esperimentatzailea, gaia>, [+DS, +DS, +DS]

(107) Mirenek eta Mikelek etxeaz **hitz egin** dute.

Hitz egin: <egilea, gaia>, [+DS, +PS]

(108) Mirenek etxea garestia dela **uste** du.

Uste: <egilea, gaia>, [+DS, +KonpS]

(109) Gurasoek [beren seme-alabak etxetik hurbil] **nahi** dituzte.

Nahi: <egilea, gaia>, [+DS, +Perpau txikia]

Dena den, adjektibo kalifikatzaile hauek aditz batek baino argumentu-egitura murriztagoa erakusten dute. Beti eta salbuespenik gabe, KonpSak hautatuko dituzte⁶. Aztertu eta azaldu ditudan adjektibo guztiek horren fede ematen dute, ez dago inolako salbuespenik.

Salbuespenak KonpSen aukera anitzen artean aurkitu ditut. Izan ere, ez dute KonpS mota guztiak hautatzen. Har dezagun adibide gisa, *posible*: adjektibo honek *-t(z)ea* menderagailua duen nominalizazioa bat bakarrik hautatu dezake. Ondorioz, *-t(z)en* morfema duen KonpS ez-gramatikala litzateke: *Erretzea posible da* vs. **Erretzen posible da*.

Era berean, determinatzaile eta postposizio sintagmak hautatzen badituzte ere, adjektibo hauek aditz batek baino zailtasun gehiago erakusten dute. Ondorioz, DSak eta PSak konplementatzaile sintagmak baino gutxiago agertzen dira. Gainera, adjektibo guztiek ez dituzte proportzio berean hautatzen, hots, gehiago agertzen dira determinatzaile sintagmak postposizio sintagmak baino: *ziur*, *gaitz*, *erraza*, *zilegi*, *harrigarri*, *beharrezko*, *zale*, *posible* eta *pozgarri* adjektiboek DSak azpikategoriza ditzakete eta *ziur*, *zale*, *jakitun* eta *posible* adjektiboek, aldiz, PSak.

Bestalde, adjektibo kalifikatzaileak aditz laguntzailea hautatzen duela pentsatzeko arrazoia badagoela uste dut. Normalean, *izan* aditz laguntzailearekin agertu arren, posible da, *egon*, **edin* eta **edun* aditz laguntzailearekin agertzea, batez ere, adjektibo kalifikatzailearen hautapen semantikoan esperimantatzailearen edo egileren bat tarteko baldin bada. Adibide gisa, har ditzagun, *hobe* eta *gaitz* adjektiboak.

⁶ Lan honetan, hautatu eta aztertu diren adjektibo guztiek KonpSak hautatzen dituzte. Dena den, ez nuke nahi irakurlea nahastu dadin. Lehen esan dudan bezala, adjektibo kalifikatzaile guztiak ager daitezke predikazio testuinguruan eta denek ez dute KonpS-rik hartzen.

Hobe adjektiboak gaiaren θ -errola duen $-t(z)ea$ nominalizazio bat hautatu dezake. Argumentu bakarra eskatuz gero, *izan* aditz laguntzailea agertuko da (*Familietako transmisioa atxikitzea hobe da*). Hiztunak egile baten berri emateko beharra ikusten duelarik, aldiz, *hobe* adjektiboak bi argumentu azpikategorizatuko ditu, hots, egilea den DS bat eta gaia den KonpS bat (*Beldurrik gabe jokatzera hobe dut*). *Gaitz* adjektiboak ere gaiaren θ -errola duen $-t(z)ea$ nominalizazio bat hautatu dezake. Argumentu bakarra izanik, *izan* aditz laguntzailea eskatuko du (*Neurria kalkulatzera gaitz(a) da*). Hiztunak esperimendatzaile bat adierazteko beharra sentitzen duelarik, aldiz, *gaitz* adjektiboak bi argumentu azpikategorizatuko ditu, hots, esperimendatzaile den DS bat eta gaia den KonpS bat (*Ikusleari neurria kalkulatzeko gaitz zai*).

Hobe eta *gaitz* adjektiboak bakarrik azaldu baditut ere, gauza bera gertatzen da, *zale*, *zilegi*, *hobe*, *zaila*, *gaitz* eta *ziur* adjektiboekin.

Zentzu honetan, ez naiz Arteatxerekin (2015) ados. Arteatxek (2015) *izan* aditz laguntzaileari aditz izaera esleitzen dio, horregatik, *izan* aditz laguntzailea predikatutzat hartzen du. Dena den, nire ustez, *izan* aditz laguntzailea ez da predikatua, lotura aditza edo kopula bat baizik. Beste gisa batean adierazteko, aditz laguntzailea komuntaduraren eta denbora edo aspektua adierazten duen burua da, argumentuen arteko erlazioak markatzen dituena.

Munduko beste hizkuntzetan gertatzen den bezala, euskaraz ere aditz iragankor eta iragangaitzen arteko txandakatzeak gertatzen dira. Adjektibo kalifikatzaileak estatikoak izanik, ez genuke horrelako txandakatzerik espero. Dena den, *hobe* bezalako adjektiboarekin nolabaiteko txandakatzea gertatzen dela ikus daiteke: alde batetik, “bertsio” iragangaitza (*izan* aditz laguntzailearekin agertzen dena), perpaus inpersonal baten antzekoa dela esan daiteke. Beste aldetik, “bertsio” iragankorrean (**edun* aditz laguntzailearekin agertzen dena), perpaus nagusiko subjektuak menpeko perpausekoa kontrolatzen duela esan daiteke. Dena dela, subjektu nagusi hori ez da egilea, esperimendatzailea baizik.

Gauza bera esan daiteke, beraz, *zale*, *zilegi*, *zaila*, *gaitz* eta *ziur* adjektiboekin.

Ildo honetatik, dialektologiak eztabaida hau argitzeko aukera eman diezaguke. *Egon* eta *izan* aditz laguntzaileen hautapenean, muga dialektalek garrantzi handia dutela

esan daiteke: iparraldeko hiztunek *izan* aditz laguntzailea *egon* baino gehiago erabiltzen dute; hegoaldekoek, aldiz, *egon* aditz laguntzailea *izan* baino gehiago. Izan ere, gaztelaniaz, *izan* eta *egon* bereizi arren, frantsesez ez dago bereizketa hori: frantsesez ez dago *egon* aditz laguntzaile gisa, *être* aditz laguntzaileak *izan* eta *egon* aditz laguntzaileak bere baitan biltzen dituelako. Ondorioz, iparraldeko hiztunek ez dute *egon* aditz laguntzaile gisa erabiltzen. Horrek erakusten duena da, *egon* eta *izan* ez direla aditz nagusiak (aditz laguntzaileak direla) eta beraz, horiek ez direla predikatuak. Horregatik, benetako predikatuak adjektiboak izango dira.

2.2.3.1.2.3. Artikuluaren auziaz

Adjektibo kalifikatzaile hauek aditz nagusiarri dagokion posizio sintaktikoan agertu arren eta aditzari dagozkion propietate edo ezaugarri batzuk erakutsi arren, harrigarri xamarra da artikulua edo mugatzailea hartzeko aukera hori izatea.

Euskal artikulua portaera determinatzaile sintagman eta predikazioan oso bitxia da. Gaia konplexua bezain interesgarria bada ere, lan honen helburua ez da hura argitzea. Beraz, interesik izanez gero, irakurleak jo beza Artiagoitiaren (1998, 2002, 2006) eta Etxeberriaren (2007,2009) lanetara.

Hain zuzen ere, mota honetako predikatuarekin agertzen den artikulua inguruen inguruan Zabalak (1993), Artiagoitiak (1997) eta Eguren (2007) zenbait proposamen egin dituzte: Zabalak (1993) predikatuarekin agertzen den artikulua hori numero morfema bat dela proposatzen du. Artiagoitiak (1997), aldiz, balio erreferentzialik ez duen artikulua predikatibo bat dela proposatzen du. Azkenik, Eguren (2007) beste hizkuntza batzuetako datuetan oinarriturik, predikatuarekin agertzen den artikulua hori predikazio marka bat dela proposatzen du. Nik Eguren (2007) proposamena asunituko dut. Gainera, munduko beste hizkuntza batzuetan, pertsona izenordainetan edo erakusleetan jatorria izan ohi duela azaltzen du. Azken argudio hau euskal datuekin ongi ezkontzen dela esan daiteke.

Nik hautatu dudan laginean, ikus daiteke, *izan* aditz laguntzailearekin agertzen diren predikatuak artikuludunak izan ohi direla eta *egon* aditz laguntzailearekin agertzen direnek, aldiz, artikulua hartzeko zailtasun gehiago erakusten dutela. Hain zuzen ere, artikulua agerpena edo agerpen eza, hurrenez-hurren, izaera edo egoera mailako ezaugarriekin lotu ohi da (Zabala 1993, Artiagoitia 20?? & Eguren 2007). Beste gisa

batean esanik, egoera eta gertaera iraunkorrek edo espazio eta denboraren murriztapenik ez dutenak, izaera mailakoak dira eta artikuludunak izan ohi dira. Behin-behineko egoerak eta gertaerak edo espazioaren eta denboraren inguruko murriztapenak erakusten dituztenak, aldiz, egoera-mailakoak dira eta ez-artikuludunak izaten dira. Adibide gisa *ziur* (110, 111, 115 eta 116 adibideak), *gaitz* (114 eta 117 adibideak), *erraz* (112 eta 117 adibideak) eta *zail* (112 eta 117 adibideak) adjektiboak aipa daitezke.

(110) Hura ziur(ra) da.

(111) Miren joango dela ziur(ra) da.

(112) Ariketa hau zail(a) da

(113) Azterketa erraz(a) da

(114) Jokatu edo ez jokatu, [sasoia] gaitz(a) da.

(110), (111), (112), (113) eta (114) adibideetan, *ziur*, *gaitz*, *erraz* eta *zail* adjektiboek egoera iraunkorrek adierazten dituzte, ondorioz, *izan* aditz laguntzailea hautatzen dute eta artikuludunak izaten dira.

(115) Markel Julen etorriko dela ziur(*ra) dago.


(116) Markel horretaz ziur(*ra) dago.

(117) [Espetxean hori jarraitzea] zaila/*erraza/*gaitz dago.

(115), (116) eta (117) adibideetan, aldiz, *ziur*, *gaitz* eta *erraz* adjektiboek behin-behineko egoerak adierazten dituzte, ondorioz, *egon* aditz laguntzailea hautatzen dute eta gehienetan ez-artikuludunak izaten dira.

Kontu honetan, muga dialektalek ere garrantzi handia izan dezakete. Izan ere, iparraldeko hiztunek atributuan eta osagarri zuzenean mugagabea gehiago erabiltzeko joera dute. Hegoaldekoek, aldiz, atributuan ia beti eta osagarri zuzenean beti forma mugatua, alegia, artikuluduna erabili ohi dute.

Lehen, adjektibo kalifikatzailea aditz nagusiari dagokion posizio sintaktikoan agertzen dela proposatu dut. Ondorioz, predikazio marka hori agertzen delarik, predikazio marka denboraren osagarrian kokatu beharko litzateke eta beraz, predikazio markaren osagarri gisa adjektibo kalifikatzailea.





2.2.3.1.2.4. Mailakatzaileen eta konparazio atzizkien erabileraz

2.1. atalean, adjektibo kalifikatzaileen ezaugarri morfologikoez aritu naiz. Hain zuzen ere, atal horretan, adjektibo kalifikatzaileen ezaugarrien artean garrantzitsuenetako bat mailakatzaileak eta konparazio atzizkiak hartzeko gaitasuna dela azaldu dut.

Aztertu eta azaldu ditudan adjektibo hauek kalifikatzaileak izanik ere, adjektibo kalifikatzaile “arruntek” ez dituzten zenbait propietate edo ezaugarri erakusten dituzte, nagusiki, mailakatzaileak eta konparazio atzizkiak hartzeko gaitasunari dagokionez. Izan ere, adjektibo horietako batzuk, mailakatzaileak eta konparazio atzizkiak hartzeko ezintasuna erakusten dute. Ezintasun hori batzuetan partziala bada ere (zenbait mailakatzaille eta konparazio atzizki onargarri badira ere), beste batzuetan erabatekoa (ez dute mailakatzailerik eta konparazio atzizkirik onartzen) izaten da. Nolanahi ere, ikusi dugunez, adjektibo kalifikatzaile hauekin mailakatzailleak eta konparazio atzizkiak oso gutxitan agertzen dira.

2.2.3.1.2.5. Analisi sintaktikoa

Tradizionalki, aditza denbora buruaren osagarri gisa agertu bada ere, predikazioari dagokionez, adjektibo kalifikatzaile hauek aditz nagusiaren jokabide ia bertsua erakusten dute. Hori dela eta, nire uste apalean, adjektibo kalifikatzaile horiek aditz nagusiari dagokion posizio sintaktikoan kokatu beharko genituzke eta hari dagokion argumentua, osagarriaren edo espezifikatzailearen posizioan (subjektua baldin bada) kokatu beharko genuke.




Ikusi dugunez, adjektibo kalifikatzaile hauek askotan argumentu bakarra azpikategorizatzen dute beraz, halabeharrez eta ezinbestean, DS eta KonpS horiek subjektu izan behar dute:

Subjektu funtzioan DS bat agertzen delarik, Islapen Hatsarre Zabalduaren eskakizunez, DS hori AdjS-ren espezifikatzailetik DenbSaren espezifikatzaile mugitu ohi da. Izan ere, denbora- buruak bere espezifikatzailea hutsik ez egotea eskatzeaz gain, mugimendu horrek kasua eta komunztadura gauzatzea eta mantentzea ahalbidetuko du. Gauza bera gertatuko litzateke perpaus txiki bat agertzen delarik (Zabala 1993). Izan ere, predikatua ez da gai bere subjektuari kasua eta komunztadura esleitzeko: subjektu horrek ezinbestean igo behar du denboraren espezifikatzaile, kasua eta komunztadura har dezan.

Zer gertatzen da, bada, adjektibo kalifikatzaileari dagokion KonpS-rekin? KonpS bat (nominalizazioa edo perpaus konpletibo bat) perpaus nagusiaren subjektua izanez gero, aukera bikoitza dela uste dut: AdjS-ren espezifikatzailean inolako

mugimendurik egin gabe geratzea (121) edo AdjS-ren espezifikatzailetik denbora sintagmaren espezifikatzaile mugitzea (122). Dena dela, nik bigarrenaren alde egingo nuke, determinatzaile sintagmarekin gertatzen dena konplementatzaile sintagmari ere aplikatu dakiokela uste baitut.



2.2.3.3. Bigarren mailako predikazioa edo predikatu adjuntuak

Azkenik, bigarren mailako predikazioaz edo predikatu adjuntuez aipamen txiki bat egin nahiko nuke. Kasu honetan, ez dira adjektiboak predikatuak, bigarren mailako predikazioaren edo predikazio adjuntuaren hautazko osagai baizik. Dena den, oso interesgarriak diren ezaugarriak eta propietateak erakusten dituzte. Zer dira, bada, bigarren mailako predikatuak edo predikatu adjuntuak?

Artiagoitiak (20??) azaldu bezala, aditzak hautatzen ez dituen predikatuak dira. Halabeharrezkoak ez izanik edo hautazkoak izanik, horiek agertu ezean, perpausak ez du gramatikaltasunik edo zuzentasunik galtzen, semantikoki ñabarduraren bat galdu dezakeen arren. Era berean, predikatu adjuntu hauek, oro har, artikulurik gabe agertzen dira. (Eguren 2007):

(123) Jon (triste(*/?a)) etorri da eskolara

Adibide honetan, ikus daiteke, *triste* predikatua adjuntua edo bigarren mailakoa dela. Izan ere, *triste* predikatua agertzea hautazkoa da, agertu ezean ere, perpaus honek ez du gramatikaltasunik galtzen. Egia da, hori bai, semantikoki ñabardura bat galtzen dela, izan ere, ez dugu jakiten ahal Jon eskolara zein animoz joan den. Artikulurik gabe agertu arren, artikulua agertzea ere posible da, betiere, identifikazioaren irakurketa lortu nahi baldin bada.

Zabala (1993) bigarren mailako predikazioaren edo predikatu adjuntuen analisiari dagokienez, urrunago iristen dela esan daiteke. Hizkuntzalari honek predikatu adjuntuen inguruan hainbat ezaugarri azaltzen ditu:

Lehenik eta behin, subjektuaz edo osagarri zuzenaz predika daitezkeela aipatzen du. Irizpide semantikoetan oinarriturik, bi azpisail proposatzen ditu: alde batetik, predikatu deskribatzaileak daude. Horiek ekintza batean parte hartzen duen argumentu batek duen ezaugarri edo egoera baten berri ematen dute. Aitzitik, ondoriozko predikatuek aditz nagusiaren ekintza bukatzen delarik, agertzen den ezaugarriari edo egoerari egiten diote erreferentzia.

Hain zuzen ere, subjektuari dagozkion predikatuak deskribatzaileak izan ohi dira:

(124) Markel lasai joan da.

Osagarriari dagozkion predikatuak deskribatzaileak (125) ez ezik, ondoriozkoak (126) ere izan daitezke:

(125) Markelek etxea merke lortu zuen.

(126) Mikeli ilea luze utzi diote.

Bigarren mailako predikazioa subjektuarekin eta osagarriarekin posible bada ere, zeharkako osagarriarekin, oro har, ez da posible izango.

(127) * Amaiari lore sorta bat pozik oparitu diogu

Bigarrenik, subjektuari dagokion predikatu bat eta objektuari dagokion beste bat perpaus berean agertzea posible dela aipatzen du. Are gehiago, subjektuari eta objektuari zuzendutako predikatu horiek bata bestearen ondotik agertzen direlarik, subjektuari zuzendurikoa aditzetik hurbilago agertuko dela azaltzen du.

(128) Semeak aitari autoa apurtuta lasai itzuli zion.

(129) *Semeak aitari autoa lasai apurtuta itzuli zion



Nolanahi ere, subjektuari edo objektuari dagozkien bi predikatu ez dira bata bestearen ondotik agertzen ahal, bata deskribatzailea eta bestea ondoriozkoa izanik ere:

(130) *Haurra triste damaturik itzuli zen udalekuetatik

(131) *Mikelek autoa apurtuta zahar itzuli zigun.

(132) *Amak bazkaria gozo itxuroso prestatzen du.

Hirugarrenik, bigarren mailako predikatuak edo predikatu adjuntuak aditz sintagmaren baitan sortzen direla azaltzen du. Are gehiago, subjektuari zuzendutako predikatuak aditz sintagmaren adjuntuak direla esaten du (133) eta objektuari zuzendutakoak, aldiz, aditz primaren adjuntuak (134):



3. Ondorioak

Lan honen helburua xumea da eta helburua xumea izanik, euskal hizkuntzalari egingo diodan ekarpena ere halakoa izango dela uste dut. Dena den, hurrengo lanek sakontasun gehiagoz landu ditzakete lehen mailako predikatu edo predikatu osagarri hauek. Nolanahi ere, adjektiboak ardatz dituen predikatuen inguruko hurbilketa posible bat izanik, gustatuko litzaidake lan honetan deskribatu eta proposatu diren kontuak irakurleak eztabaida gai hartzea.

Zeintzuk dira, bada, lan honen bidez atera ditudan behin-behineko ondorioak?

3.1. Adjektiboa funtzio edo erabilera ugari dituen kategoria gramatikala da. Izen sintagmaren barruan ager daiteke, adberbio edo aditzondo bezala erabil daiteke eta predikazioaren ardatz (predikazio osagarriaren kasuan) eta predikazioaren hautazko osagaia (predikazio adjuntuaren kasuan) izan daiteke.

3.2. Nik hautatu eta aztertu ditudan adjektibo kalifikatzaile hauek predikazioan erakusten dituzten propietateak bereziak dira: alde batetik, aditzarekin hainbat

propietate konpartitzen ditu (argumentu-egitura, posizio sintaktikoa, aditz laguntzailea hautatzea); beste aldetik, adizkiek ez bezala eta izenkiek bezala, zenbait kasutan artikulua hartzen dute. Azkenik, adjektibo arrunten propietateetatik urruntzen dira (mailakatzailleak eta konparazio-atzikiak hartzeko zailtasuna edo ezintasuna).

3.3. Adjektibo hauek erakusten dituzten propietateak bereziak izanik, analisi sintaktikoa ere halakoa izango da. Beraz, lehen mailako predikazioari edo predikatu osagarriari dagokionez, adjektiboa denbora buruaren osagarrian kokatuko da (predikazio marka agertzekotan, predikazio buruaren osagarrian) eta hari dagokion argumentua, osagarrian edo espezifikatzailean (subjektua bada). Dena den, Islapen Hatsarre Zabalduren dela eta, subjektua adjektibo sintagmaren espezifikatzailetik denbora sintagmaren espezifikatzaile mugituko da. Bigarren mailako predikatuan parte hartzen duten adjektiboak, aldiz, aditz sintagmaren baitan sortuko dira. Dena den, subjektuari zuzendutakoak ASren adjuntuak dira eta objektuari zuzendutakoak, aditz primaren (A') adjuntuak.

4. Bibliografia

- Arteatx, I. (2015). "Euskal adjektiboen sailkapena gramatika sortzailearen ikuspegitik". In. B. Fernández & P. Salaburu (arg.), *Ibon Sarasola, Gorazarre. Homenatge, Homenaje*. Bilbo: EHU Argitalpen Zerbitzua. 107-117.
- Artiagoitia, X. (1997). "DP predicates in Basque". In A. Taff (arg.), *University of Washington Working Papers in Linguistics* 15, 161-198.
- Artiagoitia, (1998). "Determinatzaile Sintagmaren Hipotesia Euskal Gramatikan". *Uztaro* 27, 33-61.
- Artiagoitia, X. (2000). *Hatsarreak eta Parametroak Lantzen*. Vitoria-Gasteiz: Diputación Foral de Álava & UPV/EHU.
- Artiagoitia, X. (2002). "The functional structure of Basque noun phrases". In X. Artiagoitia et al. (arg.), *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*. Vitoria-Gasteiz: EHU. 73-90.

Artiagoitia, X (2006). “Basque adjectives and the functional structure of the noun phrase”. In *ASJU* 40. 107-132.

Artiagoitia, X. (20??). “Hirugarren kapitulua: adjektibo kategoriaren inguruan”. In. *Gramatika-kategoriak euskaraz: lehen hurbilketa bat*. EHUko eskuizkribu argitaragabea.⁷

Eguren, L. (2007). “Marcas de predicación en vasco”. In. B.Fernández & I. Laka (arg.), *Andolin gogoan. Essays in honour of profesor Eguzkitza*. Bilbo: EHU. 233-249.

Etxeberria, U. (2007). “Existentially interpreted definites”. In Puig-Waldmuüller, E. (arg.), *Proceedings of Sinn und Bedeutung* 11. Barcelona: Universitat Pompeu Fabra. 229-243.

Etxeberria, U. (2009). “Euskal artikulua bultza ditzakeen interpretazioez”. In. *ASJU* 43. 315-334.

Euskaltzaindia, (1993). *Euskal Gramatika: Perpaus Bakuna*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Zabala, I. (1993). *Predikazioaren teoriak gramatika sortzailean (euskararen kasua)*. Doktorego-tesia. EHU.

Zubiri, I. & E. (2012). *Euskal Gramatika osoa*. Bilbo: Ikasbook S.L.

⁷ Oraindik argitaratu ez badu ere, aukera eman zidan eskuizkribu hori erabiltzeko. Horregatik, lanean zehar baita bibliografiaren atalean ere, argitalpen urtea galdera ikurrez adierazi dut.